


Ohiko galderen gida

Kulturako profesionaleri laguntzeko programa

Kulturako profesionalentzako aparteko laguntzen **deialdia**, **helburu duena profesional horiei laguntzea beren jarduerak bertan behera** edo etenda geratu badira **Covid-19ak** eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta





Sarrera


Gida honetan **kultura-sektorean berriazko eragina duten ondorioak eta premiak arintzeko** Eusko Jaurlaritzak abian jarri dituen **aparteko laguntzei** buruzko oinarriko informazioa dago.

Aldi baterako laguntza horiek eman ahal izango dira kultura-sektoreari lehendik esleitutako aurrekontuko partida bat, testuinguru honetan berehala egikaritu ezin izango dena, berbideratu delako. Berbideratze horrek aukera ematen digu premia-koena eta beharrezkoena denari erantzuteko: oraindik ere ezein lege-esparrutan aitortuta ez dagoen hain ezohiko bitxitasuna, hots, kontratu-aldizkakotasuna duen sektore bateko profesionalak izateagatik lan-kalteberatasunean, une honetan bereziki areagotu diren egoeretan, bizitzera behartuta daudenak babestea.

Aparteko laguntzak dira, egoera kroniko bat arintzeko helburua dutenak, eta, horregatik, inor baztertu gabe, batez ere beste mota bateko oinarriko prestazioak jaso ezin dituzten sektoreko pertsonak artatzea dute ardaztat, betiere esparru duin batetik.

Lehendabizi urgentziari erantzungo zaio. Baina horrek ez du esan nahi, inola ere, ez dugula lanean jarraituko alarma-egoera deklaratu izanak eta horrek ondoren eragin duen inpaktuak kultura-sektorean sorraraziko duten egoera zailari laguntzeko eta erantzuteko beste bide batzuk proposatzeko eta abian jartzeko.

Aparteko laguntzez gain, gogoan izan **Kultur*k*i/ikPRO** plataforma digitalean **Arreta Pertsonalizatua emateko Zerbitzu Telematikoa** aurkituko duzula. Zerbitzu horretan, lan-, zerga- eta finantza-arloko aholkularitzaren eremuen inguruko kontsultak eta zalantzak egin daitezke dohainik. Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikariek eta talde espezializatu batek bideratuko zaituztegu eta erantzungo dizuegu posta elektronikoko bidez edo telefono bidez 48 ordu igaro baino lehen.



Zein da helburua?

Kultura-jarduerak bertan behera edo etenda geratu direlako, profesionalak izandako jardueraren ekonomikoaren galera **eta diru-sarrerarik eza** arintzen laguntzea, nahiz eta profesional horiek ikuskizun edo ekitaldi kolektiboen partaide izan.

Nori dago zuzendua?

Egoitza pertsonala eta fiskala Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan duten pertsonen, betiere adin nagusikoak badira eta **beren errenta-aitorpenean lan-jarduerak artistikoa edo kulturala baino ez dutela azaltzen bada**.

Ulertzen da pertsona bat jarduerak jakin batean eskusiboki aritzen dela bere diru-sarriren % 60 jarduerak horretatik eratortzen bada.

Kultura-jardueraren zer eremu sartzen dira?

Ikusmen-arteak, zuzeneko arteak (arte eszenikoak eta arte musikalak), zinema eta ikus-entzunezko edukiak, literatura, bertsolaritza, ilustrazioa, artelanen zaharberritzea, museoak, liburutegiak, artxiboak. Baldin eta profesionalak Gizarte Segurantzaren artisten araubide orokorrean edo dokumentu honen amaieran azaltzen diren EJSNetakoren batengatik kotizatu badu.

Zein da guztizko zuzkidura?

2,5 milioi euro

Guztizko zuzkidura baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen artean esleitu da funtsak bukatzen diren arte.

Esleipenaren lehenengo postua notario aurrean egindako zozketa batean erabakiko da. Zozketan azaltzen den eskabidearen zenbakitik aurrera, laguntzak elkarren segidan emango dira.

Nork du laguntzak lortzeko aukera?

- Banako profesionalak.
- Ondasun-erkidegoetako eta sozietate zibiletako kideek, betiere dirulaguntza norbere izenean eskatzen bada.

Zertan datza aparteko laguntza?

Jarduerari 2019an edo lehenago ekin bazitzaion, laguntza eskatzen duten profesionalak **aurreko urteko PFEZn (2019)** aitortutako diru-sarreraren garbier **hileko batez bestekoaren % 70aren** baliokidea den zenbatekoa jaso ahal izango dute; nolana ere,



Zein da hilean jaso ahal izango den gehieneko zenbatekoa?

aitortutako diru-sarrerak **artisten araubide orokorreko kotizazioak** arautzeko ziurtagirian jasotako diru-sarrerekin edo kultura-jarduerarekin lotuta egongo dira.

1.200 euro hilean onuradun bakoitzeko.

Zenbat denboraz?

6 hilabetez gehienez ere

Laguntzak jasotzeko aldia martxoaren 13tik (hori ere barne) **alarma-egoeraren amaiera deklaratzan den eta** kultura- eta arte-arloko ekitaldi kolektibo presentzialetan **jarduerara itzultzeko baimena ematen den** hilabetearen azken egunera bitartekoa da.


Eta jarduera artistikoa 2020an hasi banuen?

2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko martxoaren 13ra bitarteko aldian (biak barne) hasi bazinen, laguntzaren zenbatekoa **950 euro** izango da hileko.

Aurreikusten al da bateraezintasunen bat?

Bai. Aparteko laguntza hauek aurrekontu-esleipenaren muga bat dute, ezin zaizkie sektoreko profesional guzti-guztiei aplikatu; horregatik, bateraezintasunak dira beste edozein motatako oinarriko prestaziorik jasotzearekin, esate baterako:

- **jarduera eteteagatik** emandakoekin.
- jarduera eteteagatik **aparteko prestazioarekin**, Alarma Egoeraren deklarazioak eraginpean hartzen dituen pertsonen kasuan
- **langabeziako prestazioarekin eta sorospenarekin**
- **diru-sarrerak ordeztan dituen edozein motatako prestazioarekin, laguntzarekin edo dirulaguntzarekin**, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek ematen dituztenekin.



BALDINTZAK

Zer baldintza bete behar dituzte laguntza horiek eskatzen dituzten pertsonak?

- Adin nagusikoa izatea.
- EAEn erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea.
- Jardueraren egoitza fiskala EAEn jartzea. Ondasun-erkidegoetako eta sozietate zibiletako kideen kasuan, jardueraren egoitza soziala eta fiskala EAEn jarriko dira.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzean, **kulturaren esparruko jarduera profesional bat** edukitzea esleituta, edo 2019. urteari dagokion aitortzean artisten araubide orokorrean kotizatu izana.
- Etenda edo bertan behera geratu den kultura-esparruko jarduera profesionalean aritzea.
- Langile autonomoen araubide berezian edo artisten araubide orokorrean gutxienez 4 hilabetez edo 120 egunez alta emanda egon izana 2019. urtean.

Alda al naiteke Autonomia Erkidegoz?

Ez. Onuradunak erroldatuta edo fiskalki alta emanda jarraitu behar du **alarma-egoerak irauten duen bitartean eta egoera hori amaitu ondorengo 4 hilabeteetan gutxienez.**

Eman al dezaket baja jardueran?

Ez. Ekonomia-jardueren gaineko Zergan, jarduera profesionalean, fiskalki alta emanda jarraitu behar da alarma-egoerak irauten duen bitartean eta egoera hori amaitu ondorengo 4 hilabeteetan gutxienez.

Zer betebeharrak behar dira egunean laguntza eskatzeko?

- Zerga-betebeharrak
- Dirulaguntzak itzultzeko dagozkion ordainketa guztiak eginak edukitzea
- Penalki eta administratiboki zigortuta ez egotea
- Dirulaguntzen onuradun izateko ezgaituta ez egotea

Nola egiaztatzen dira nire betebeharrak?

Laguntza eman eta ordainketa egin aurretik, organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak egunean daudela. Dena den, eskatzaileak espresuki egin ahal izango dio aurka egiaztapen automatikoari; horretarako, baldintza egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.



ESKABIDEA, DOKUMENTAZIOA ETA EPEAK

Non aurkeztu behar dut eskabidea?

Ahal bada, Lanbideren egoitza elektronikoen bitartez, bere webgunean: <https://www.lanbide.euskadi.eus/dirulaguntza/-/dirulaguntza/2020/aprocu-2020/> ematen den eredu erabiliz.

Zer egunera arte aurkez dezaket laguntza-eskabidea?

Epea **20-05-12n** hasi zen eta hamar egun baliodunetan **amaituko da: maiatzaren 25an**

Eta ordenagailurik ez badut?


Izapidea elektronikoki egin ahal izateko baliabiderik ez baduzu, Zerbitzu Zentraletan edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren edozein Bulegotan aurkeztu ahal izango duzu eskabidea, *baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bitartekoren bidez ere.*

Dena den, bertaratu ezin bazara, eta behar diren bitarteko elektronikoak ez badituzu, Lanbidek bere webgunean jakinaraziko du nola egin behar den eskabidea behin-behinean.

Zer dokumentazio aurkeztu behar da?

Eskabide-orriarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren kopia, 2019. urteari dagokiona, edo 2019ko diru-sarrerak biltzen dituen erantzukizunpeko adierazpena.
- EJJn alta-agiriaren kopia
- Hala badagokio, ondasun-erkidegoa edo sozietate zibilaren eratzea egiaztatze dokumentua.
- Artisten araubide orokorraren kotizazioak erregularizatzeko ziurtagiria, 2019ko ekitaldiari dagozkion diru-sarrerak espresuki azaltzen dituen, hala badagokio.
- Martxoaren 13an aktibo zeundela egiaztatzea edo 14tik aurrera egin behar zenituen jardueren kontratua aurkeztea.



Zer geratzen da dokumentazio guztia aurkezten ez badut?

Eskabidean eremu guztiak betetzen ez badira, edo eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, jakinaraziko dizugu eta 10 eguneko epea izango duzu osatzeko. 10 eguneko epean egiten ez baduzu, ulertuko da ez duzula laguntza eskatzeko prozesuarekin jarraitu nahi, eta jakinarazpen bat jasoko duzu prozesu horren amaiera gisa.

Nola aurkeztu behar da eskabidea ondasun-erkidego edo sozietate zibil bateko partaide banaiz?

Erkidego edo sozietate hori osatzen duen bazkide bakoitzak bere eskabidea egin behar du eta eskabide guztiak aldi berean aurkeztu behar dira.

ORDAINTZEKO MODUA ETA ONDORENGO KUDEAKETA

Nola ordainduko da laguntza?

Ordainketa bakar bat egingo da laguntza eman ondoren. Beharrezkoa izanez gero, diru-laguntzaren zenbatekotik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) konturako atxikipenak kenduko dira, Zergaren araudi erregulatzailerak aplikatuz.

Kobratu ahal izateko, erregistroren batean alta emanda egon behar al dut?

Bai. Ordainketa egin ahal izateko, Ogasun eta Ekonomia Sailaren **Hirugarrenen erregistroan** alta emanda egon behar da. Alta emanda ez bazaude, edo zure banku-datuak aldatu nahi badituzu, helbide honetan aurki dezakezun formularioa bete behar duzu: http://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/a_djuntos/ALTA.pdf



Nola kudeatuko dut prozesua eskabidea aurkeztu ondoren?

Ondorengo izapideak Eusko Jaurlaritzaren <https://www.euskadi.eus> egoitza elektronikoaaren “Nire karpeta” atalaren bitartez egingo dira. Egoitza elektronikoa horretan eskuragarri daude kanal elektronikoa erabiliz nola izapidetu behar den adierazten duten zehaztasunak.

Eskabideari sarrera eman ondoren, nola ebazten da prozesua?

- Eskabide bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio sarrera-hurrenkeraren arabera. Aurkezteko epea amaitu ondoren, **notario aurrean** zozkatuko da zer zenbakitik aurrera hasiko den eskabideak aztertzen. **Hurrenkeran horretan jarraituko da balioesten eta laguntza ematen** deialdian aurreikusitako betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei, eskabideak finantzatzeko bideratutako **funtsak agortzen diren arte**.
- **Organo kudeatzaileak 4 hileko gehieneko epea du** ebazpena **emateko eta jakinarazteko**, eskabidea aurkeztu den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan jakinarazpenik jasotzen ez bada, dirulaguntza eman dela ulertuko da.
- **Ebazpena aldekoa ez bada, onartzen ez bada, errekurtsioa jarri ahal izango da hilabeteko epean ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera**.
- Benetan emandako laguntzei buruzko publikotasuna emateko eta jakinarazteko legezko betebeharrak betetzeko asmoz, esanbidezko eta banako jakinarazpenaz gain, honako hau argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, emandako laguntzen onuradunen zerrenda, jasotako zenbatekoak adierazita, baita emandako dirulaguntza aldatu behar izan zaien pertsonen zerrenda ere.

Laneratzea Aktibatze Zuzendaritza da izapideak egiten dituen eta Lanbide -Enplegurako Euskal Zerbitzuaren zuzendari nagusia da eskaera balioetsi eta ebazten duena.

Laguntza ematen badidate, zerbait gehiago aurkeztu behar al da? noiz?

Bai. **2021eko urtarrilaren 29a** baino lehen, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Pertsona Fisikoen **Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren** kopia, 2019. urteari dagokiona




- Artisten araubideari buruzko **kotizazioak erregularizatzeko** ziurtagiria, **2019.** urteari dagozkion diru-sarrerak jasotzen dituen.

Egiaztagiriak aurkezten direnean, jasotako laguntzaren guztizko zenbatekoak 6 hileko aldi baterako aitortutako diru-sarreraren hileko batez bestekoaren % 70a gainditzen badu, prozedura bat jarriko da abian guztizko zenbatekoa doitzeko eta aldea itzuli ahal izateko.

2021eko urtarrilaren 29a baino lehen **ez bada jaso** laguntza justifikatzen duen **dokumentazioa, emandako guztizko zenbatekoa itzuli egin beharko da.** Horretarako, Lanbidek errekerimendu-prozesu bat hasiko du.

Zer betebeharrak ditut onuradun gisa?

- Alarma-egoera amaitutakoan, berriz hasia lan-jarduera, eta lan-jarduera horretan alta emanda jarraitzea 4 hileko gutxieneko epe batean (jarduera berriz hasten denetik 6 hilabete igaro ondoren).
 - Jarduera horretan aritzea gutxienez **4 hilabetez**, alarma-egoera amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita.
 - **Betekizunak eta baldintzak betetzen direla** eta jarduera egiten dela **justifikatzea.**
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea:
 - Helburu berberarekin, edozein Administrazio publikotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik jasotako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratu dituela.
 - Dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein baldintza objektibo zein subjektiboren aldaketa.
 - Diruz lagundutako jardueren helburua nahiz izaera nabarmen aldatzen duen zernahi gorabehera.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko Erakunde publikoek eta Sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzultze- edo zehapen-prozedurak.
-
- Enpresako dokumentazio, publizitate, irudi edo material orok hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin beharko du, emakumeak baztertzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexistak saihestu beharko ditu



eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero-rolen eta genero-identitateen aniztasuna erakusten dituen irudia sustatu beharko du.



Zehazki, zer kultura-jarduerak jaso dezake laguntza?

KULTURA-JARDUERAK

Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalan (EJSN) oinarrituta.

1. ATALA: ENPRESA-JARDUERAK

96 taldekatzea. Jolas- eta kultura-zerbitzuak.

961 TALDEA. FILM ZINEMATOGRAFIKOEN EKOIZPENA ETA MOTA HORRETAKO FILMEN PRODUKZIOAREKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK (BIDEOA BARNE).

961.1.- Film zinematografikoen ekoizpena (bideoak barne).

961.2.- Bikoizketa, sinkronizazioa eta filmen edo zinta zinematografikoen edizioa (bideoak barne), betiere ekoiztetxeak berak egiten ez badu.

961.3.- Film edo zinta zinematografikoetarako dekorazio eszenikoak, betiere ekoiztetxeak berak egiten ez badu.

966 TALDEA. LIBURUTEGIAK, ARTXIBOAK, MUSEOAK.

966.1.- Liburutegiak eta museoak.

86 taldekatzea. Lanbide liberalak, artistikoak eta literarioak.

861 TALDEA. MARGOLARIAK, ESKULTOREAK, ZERAMIKARIAK, ARTISAUAK, GRABATZAILEAK ETA ANTZEKO ARTISTAK.

862 TALDEA. ARTELANEN ZAHARBERRITZAILEAK.

2. ATALA: JARDUERA PROFESIONALAK

226 TALDEA. SOINU-TEKNIKARIAK.

227 TALDEA. ARGITEKNIKARIAK.

3. ATALA: JARDUERA ARTISTIKOAK


01 taldekatzea. Zinemarekin, antzerkiarekin eta zirkuarekin lotutako jarduerak.

011 TALDEA. ZINEMA- ETA ANTZERKI-ZUZENDARIAK.

012 TALDEA. ZUZENDARITZA-LAGUNTZAILEAK. 013 TALDEA. ZINEMA- ETA ANTZERKI-AKTOREAK.

013 TALDEA. ZINEMA- ETA ANTZERKI-AKTOREAK.

014 TALDEA. ESTRA ESPEZIALIZATUAK, BIKOITZAK, KONPARTSAK ETA MEREZIDUNAK.



015 TALDEA. ZINEMAKO, TELEBISTAKO ETA BIDEOKO KAMERARIAK.

016 TALDEA. UMORISTAK, KARIKATOAK, XELEBREAK, SASIHIZLARIAK, ERREZITATZAILEAK, ILUSIONISTAK, ETA ABAR.

017 TALDEA. HITZ-EMAILEAK ETA ERREJIDOREAK.

018 TALDEA. ZIRKUKO ARTISTAK.

019 TALDEA. ZINEMAREKIN, ANTZERKIAREKIN ETA ZIRKUAREKIN LOTUTAKO BESTELAKO JARDUERAK, BESTE ATAL BATEAN SARTUTA EZ DAUDENAK.

02 taldekatzea. Dantzarekin lotutako jarduerak.

022 TALDEA. DANTZARIAK.

029 TALDEA. DANTZAREKIN LOTUTAKO BESTELAKO JARDUERAK, BESTE ATAL BATEAN SARTUTA EZ DAUDENAK.

03 taldekatzea. Musikarekin lotutako jarduerak.

031 TALDEA. MUSIKA-IRAKASLEAK ETA MUSIKA-ZUZENDARIAK.

032 TALDEA. MUSIKA-INSTRUMENTUEN INTERPRETATZAILEAK.

033 TALDEA. ABESLARIAK.

039 TALDEA. MUSIKAREKIN LOTUTAKO BESTELAKO JARDUERAK, BESTE ATAL BATEAN SARTUTA EZ DAUDENAK.

**Gida honetako edukiak ezin dira, inola ere, indarrean dagoen legetestua-
ren ordezkotzat hartu. Informazioa emateko soilik egin da. Eusko Jaurlaritzak edukiak eguneratzeko eta zuzentzeko eskubidea du.**

[Dokumentu ofizialarekiko lotura](#)

[Lanbide](#)

Informazio gehiago

Webgunea: <http://www.kulturklik.euskadi.eus/aholkularitza/>

Euskadi, auzolana